

B TALDEA

(Hugo Medina, Ivan Zamarreño, Mainer Lakarra eta Eneko Manchado)

IDEIA

Gure proiektua segurtasun kaxa bat izango da mugikorra autoaren barruan gordetzeko. Gidariak mugikorra erabil ez erbaitzeko eta horrela istripuak saihesteko.

Erabilpena bermatzeko, **ASISA** aseguruarekin harremanetan jarriko gara, kaxaren garrantzia aldarrikatzeko, geroago, **DGT**-ari eskaera bat egiteko, urte zehatz batetik (5-10 urteko epean) aurrera kotxeak funtzionamendu hau derrigorezkoa izateko.

Kaxa **altzairuzkoa** izango da, gogorra, ez puskatzeko. Eskularru-kaxa baten modukoa izango da, erraz ireki eta ixteko. Gure ideiaren berezitasunak distrazioekin dauka erlazioa. Istripu gehienak autoa gidatzean mezu edo dei bat erantzuteagatik gertatzen dira. Hori ez gertatzeko, gure kaxak **intsonorizazio sistema** bat izango du, inork ez molestatzeko bidean.

Kaxaren funtzionamenduari dagokionez, **derrigorrezkoa izango da mugikorra sartzea kaxan kotxea martxan jartzeko**, bestela kotxea ez da martxan jarriko. Behin martxan, kaxa itxi egingo da eta ezin izango da sakelakoa erabili edo hartu kotxea gelditzen den arte. Orduan, kaxa ireki egingo da.

